BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

819

EBAZPENA, 2015eko urtarrilaren 20koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, 2015. urtean emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko hiru bekatarako deialdia onartzen duen ebazpenaren babesean aurkeztutako eskariak aztertuko dituen Hautaketa Batzordearen osaera argitaratzen duena.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariaren 2014ko abenduaren 2ko Ebazpenaren bidez, 2015. urtean emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko hiru bekatarako deialdia egitea onartu zen. Ebazpen hori 2014ko abenduaren 16ko EHAAn argitaratu zen.

Aurkezten diren eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko osatuko den Hautaketa Batzordearen osaera arautzen du aipatutako ebazpenaren 8. artikuluak. Hautaketa Batzordeak arrazoitutako ebazpen-proposamena emango du, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari aurkeztuko dio.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2015. urtean emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko hiru bekatarako deialdiaren Hautaketa Batzordeko kideak izendatzea, eta haren osaera argitaratzea.

Bigarrena.– 2014ko abenduaren 2ko Ebazpenaren 8. artikuluan araututako Hautaketa Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

a) Batzordeburua:

Ana Alberdi Zubia andrea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

b) Batzordekideak:

Rafael Junguitu Uribe jauna, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Administrazio eta Zerbitzu arloko arduraduna.

Noemi Alangua Elvira andrea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Azterlan, Dokumentazio eta Plangintza Arloko arduraduna.

Maria de los Llanos Olivas Lagunilla andrea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko teknikaria.

Izaskun Fernandez Otegi andrea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Aholkularitza Juridikoaren Arloko arduraduna, bera idazkari lanetan ere arituko baita.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 20a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.